

PRESENTACIÓN

En esta nueva exposición del Museo del Carlismo convergen funciones esenciales como la conservación, documentación y difusión del patrimonio cultural, junto con la necesaria vinculación de la institución con el ámbito universitario.

El origen de esta muestra se remonta a 2014, cuando el museo inició su colaboración en proyectos relacionados con la puesta en valor del patrimonio arqueológico de Navarra vinculado a las guerras carlistas. En concreto, con motivo del Día Internacional del Turismo de ese año, se organizó una visita a los restos de los reductos Marqués del Duero, Alfonso XII, Princesa de Asturias y Cáceres. En 2016, acogió la presentación del proyecto de puesta en valor del fuerte liberal Princesa de Asturias patrocinado por el Ayuntamiento de Villatuerta y con la dirección técnica del Grupo de Investigación de Patrimonio Construido de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. En 2017, el museo acogió la jornada "Paisajes y memorias del conflicto carlista" organizada mediante un convenio de colaboración entre la Dirección General de Cultura – Institución Príncipe de Viana, Jakiunde-Academia de las Ciencias, Artes y Letras y la cátedra UNESCO de Paisajes Culturales y Patrimonio de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Ese mismo año, con motivo de las Jornadas Europeas de Patrimonio, coordinadas desde el Servicio de Patrimonio Histórico del Gobierno de Navarra, el Museo del Carlismo programó una visita guiada al fuerte carlista de San Juan de Arandigoyen para conocer los trabajos arqueológicos que entonces se estaban desarrollando.

Además de estas acciones, el hilo argumental de la exposición parte de la tesis doctoral "Arqueología de la segunda guerra carlista en Navarra. Una aproximación al conflicto desde el registro material", defendida por Iban Roldán Vergarachea en 2021 en la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea que ha puesto en valor un interesante patrimonio cultural estrechamente vinculado con el carácter histórico del territorio. El autor ha participado activamente en todos los proyectos del Museo del Carlismo antes señalados y en los últimos años ha dirigido o codirigido campañas de excavación arqueológica en el campo de batalla de Abárzuza, y en

algunos de los fuertes carlistas y liberales de las inmediaciones de Estella-Lizarra.

Junto al ámbito académico, esta exposición ha puesto de relieve la labor de catalogación, documentación, conservación y restauración del patrimonio arqueológico desempeñada por la Sección de Registro, Bienes Muebles y Arqueología respecto a los materiales exhibidos de titularidad de la Administración de la Comunidad Foral, a los que se suman otros procedentes de instituciones como el Arkeologi Museoa, el Archivo Municipal de Estella-Lizarra, la basílica de Nuestra Señora del Puy o del propio Museo del Carlismo.

Esta exposición remarca la rigurosidad e importancia tanto de la metodología arqueológica como de los hallazgos materiales procedentes de ella y que se vinculan a los testimonios legados del pasado, así como de los escenarios y lugares donde se desarrollaron los hechos históricos ocurridos en Navarra en el siglo XIX, refiriéndose tanto a los campos de batalla como a los fuertes construidos en la segunda guerra carlista. De este modo, tanto el objeto material como el territorio, así como los relatos e informaciones procedentes de diferentes fuentes, conforman un patrimonio tan desconocido como singular en el que convergen materialidad e inmaterialidad, historia y memoria.

La exposición, estructurada en cinco secciones, aborda la metodología arqueológica y, particularmente, las arqueologías recientes, con ejemplos de la Guerra de la Independencia y la Guerra Civil Española, y profundiza de un modo especial en la experiencia derivada de las campañas arqueológicas desarrolladas en el campo de batalla de Abárzuza, y en los fuertes Princesa de Asturias (Villatuerta) y San Juan de Arandigoyen, liberal y carlista respectivamente.

El carácter pionero de los estudios sobre arqueología reciente aplicada a las guerras carlistas sitúan al Museo del Carlismo en la vanguardia de las investigaciones académicas y, al mismo tiempo, esta exposición revela una vez más el compromiso de la institución con la investigación, conservación y difusión del patrimonio cultural relacionado con el carlismo.

Museo del Carlismo

AURKEZPENA

Karlismoaren Museoaren erakusketa berri honetan, museoak ondare kulturala kontserbatu, dokumentatu eta hedatzearekin lotuta dituen funtsezko eginkizunak eta erakundearen eta unibertsitate-eremuaren arteko zubiak eraikitzeko premia uztartu dira.

Erakusketa honek 2014an du jatorria; hain zuzen ere, museoa Nafarroako gerra karlisten ondare arkeologikoaren balioa azpimarratzearekin lotutako proiektuetan elkarlanean aritzen hasi zenean. Zehazki, urte hartako Turismoaren Nazioarteko Egunaren karietara, Dueroko Markesa, Alfontso XII.a, Asturiasko Printzes eta Cáceres gotorlekuetako hondakinetarako bisitaldi bat antolatu zen. 2016an Asturiasko Printzesa gotorleku liberalaren balioa nabarmentzeko proiektuaren aurkezpena hartu zuen, Villatuertako Udalaren babesarekin eta Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen Eraikitako Ondarearen Ikerketa Taldearen zuzendaritza teknikoarekin burutu zena. 2017an, museoa "Gatazka karlistaren paisaiak eta memoriak" jardunaldiaren egoitza izan zen, Kulturako Zuzendaritza Nagusia – Vianako Printzea Erakundearren, Jakiunde-Zientzia, Arte eta Letren Akademiaren eta Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen Paisaia Kulturalak eta Ondarea UNESCO katedraren arteko lankidetza-hitzarmen baten bidez antolatu zena. Urte horretan berean, Ondarearen Europako Jardunaldien harira, Nafarroako Gobernuaren Ondare Historikoaren Zerbitzuak koordinatuta, Karlismoaren Museoak Arandigoiengo San Joan gotorleku karlistarako bisitaldi gidatua programatu zuen garatzen ari ziren lan arkeologikoak ezagutze aldera.

Ekitza horiez gain, erakusketaren argumentuaren haria "Arqueología de la segunda guerra carlista en Navarra. Una aproximación al conflicto desde el registro material" tesistik abiatzen da, 2021ean Iban Roldán Vergaracheak Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatean defendatu zuena eta lurraltearen izaera historikoarekin hertsiki lotutako ondare kultural interesgarriaren garrantzia azpimarratzen duena. Egileak parte-hartze aktiboa izan du arrestian aipatutako Karlismoaren Museoaren proiektu orotan eta azken urteotan indusketa arkeologikoko kanpainen zuzendari

eta zuzendarikide izan da Abartzuzako gudu-zelaian nahiz gotorleku karlista eta liberal batzuetan.

Arlo akademikoarekin batera, erakusketa honek Erre-gistroaren, Ondasun Higigarrien eta Arkeologiaren Atalak ondare historikoa katalogatu, dokumentatu, kontserbatu eta zaharberritzeko egin duen lana balioesten du. Izan ere, lan hori funtsezkoa izan da erakutsi diren Foru Erkidegoko Administrazioaren titulartasuneko materialen kasuan eta beste erakunde batzuetakoen kasuan ere bai; hala nola, Arkeologi Museoko, Estella-Lizarra Udal Artxiboko, Puiko Andre Mariaren basilikako edo are Karlismoaren Museoko materialen kasuan.

Erakusketak metodologia arkeologikoaren eta haren bidez egindako aurkikuntza materialen zehaztasuna eta garrantzia nabarmentzen ditu. Izan ere, iraganak utzitako testigantzekin, Nafarroan XIX. mendean jazotako gertakari historikoengatik zerikusia dute, preseski gudu-zelaiekin zein Bigarren Gerra Karlistan eraikitako gotorlekuekin. Era horretan, objektu materialak eta lurralteak, hainbat iturritako kontakizunek eta informazioek ezezaguna bezain berezia den ondarea osatzen dute, non materialtasunak eta immaterialtasunak, historiak eta memoriak, bat egiten duten.

Bost ataltan egituratutako erakusketa honek metodologia arkeologikoa jorratzen du eta, bereziki, oraintsuko arkeologiak, Independentziako Gerraren eta Espainiako Gerra Zibilaren adibideekin. Orobak, Abartzuzako gudu-zelaian garatutako kanpaina arkeologikoetako, Asturiasko Printzes (Villatuerta) eta Arandigoiengo San Joan gotorlekuetatik –liberal eta karlista, hurrenez hurren– eratorritako esperientzian sakontzen du.

Gerra karlistetara aplikatutako oraintsuko arkeologiari buruzko ikerlan aitzindariekin ikerketa akademikoen abangoardian kokatzen dute Karlismoaren Museoa eta, aldi berean, erakusketa honek erakundeak karlismoarekin zerikusia duen ondare kulturala ikertu, kontserbatu eta hedatzearekin duen konpromisoa agerian uzten du berriro ere.

Karlismoaren Museoa